

Dirulaguntza euskotan ordaintzeko proposamena

Euskal Herrian sortutako aberastasuna lurraldeko eragileengana bideratzeko xedean azkarki parte hartzeko, diruz laguntzen dituen elkarteak euskoa erabiltzera bultzatu nahi ditu EHEk, euskoa kudeatzen duen Euskal Moneta elkartearekin 2018ko urriaren 22an sinatutako hitzarmenari jarraiki.

Karia horretara, eta adostasun librean oinarriturik, EHEk emanen dizun dirulaguntza osoa edo zati bat euskotan ordaintzea eska dezakezu.

Hona hemen jarraitu beharreko urratsak:

1. Lehenik, Euskal Moneta elkarteko kide izan behar duzu, adostasun librean oinarriturik. Gero, EHEri erantsitako kobrantza-ahalordea eman behar diozu (eta honek bere kontulari publikoari emanen dio). Horrela, Euskal Monetari baimena emanen diozu EHEk zure izenean emanen duen dirulaguntza osoa edo zati bat errezibitzeko.
2. Kontulari publikoak eurotan ordainduko du ahalordean zehaztutako zenbatekoa, Euskal Moneta elkartearen kontuan.
3. Euskal Moneta elkarteak zure eusko kontuan euskotan sartuko du errezibitu duen euroen zenbatekoa.

Edozein argibide nahi izanez gero, jarri harremanetan Euskal Moneta elkartearekin:

Euskal Moneta -
Monnaie locale du Pays Basque
Kordelierren karrika, 20
64100 Baiona
05 33 47 54 11
info@euskalmoneta.org